

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Jose Luis Ibarra Izagirre*

*Durango,  
Bizkaia (1929)*

Aurkibidea



## **Biografia**



1929an jaio zen [Mikeldin](#). Ama durangarra zuen eta aita Gordexolakoa. Zazpi urtegaz-edo, gerra aurretik, lurretako plazara joan ziren bizitzera. Gurasoek Mendizabalen lantegian egiten zuten lan eta sozialistak ziren, baina "lehenengo sozialistak" Jose Luisek dioen legez. Gerra sasoi bere aita Mateo batailoian aritu zen miliziano. Hiru neba-arrebak amamarekin ebakuatu ziren Irazagorrian (Gordexola) eta ama Durangon egon zen eta gero Artziniegan. Durangora bueltatzerakoan, etxea hutsik aurkitu zuten: dena ostuta. Aita frontetik etortzerakoan, ama eta biak kartzelan sartu zituzten UGTko kideak eta sozialistak izatearren; 4-5 urtez egon ziren preso. Ama lotara baino ez zen joaten kartzelara; egunez, neskame lanetan ziharduen (falangisten bulegoak garbitu...) eta ilea motz-motz ebaki zioten jendeak "zer zen" jakin zezan. Bitarte horretan 3 neba-arrebak amamarekin egon ziren. Aitarekin aldeko aitona-amonak Bilbon bizi zirenez bertan ere denbora asko igaro zuten. Umetan lurretako eskolan hasi zituen ikasketak, baina hura apurtzerakoan, konpondu arte Durangoko La Villara joan ziren. 14 urte gaz Durangoko maristetara joan zen lanbide bat ikastera eta handik Baqué kafearen hasi zen lanean; lehenengo Pinondon; gero, Barrenkalen; eta, azkenik, gaur egun dagoen lekuan, Salabarrin. Durangoko [Momotxo](#) auzoko [Goikoetxebarria baserriko alaba](#)rekin ezkontzerakoan, jaioterrira bueltatu zen, [Pinondora](#) hain zuzen ere.

# Zintak

## DUR-030

- **Proiektua:** Durangoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-04-29
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

---

Ibarra Izagirre, Jose Luis | ahotsak.eus Orr.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-25

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com